

Erabakitzeke eskubidea, zertarako?

A

zken aldion askotan mintzo gara erabakitzeke eskubideari buruz. Hain zuzen euskaldunoi eskubide hau onetsi behar zaigula, herri gisa zor zaigun eskubide hau aitortu behar omen zaigu. Horretarako, batzuek historiari helduko diote eta beste batzuek —gaur egun euskaldun ugari, gehiengoak ez esan arren— nahi hori azaltzen dugu, bai zeharka hauteskundeetan, baita etengabe egiten diren inkestetan ere. Bestalde, alderdi abertzale oro eta Ezker Batua ere eskubide hori gauzatzearen alde agertzen dira. Beraz, elite politikoaren gehiengo batek, EAEn bederen, helburu horrekin bat egiten du, nahiz horretara heltzeko bideak ezberdinak izan.

Beste aldean, eskubide horren aurkari sutsuak, espainiar estatuaren batasuna aldaezina dela eta, erabakitzeke eskubidea ukatzen digun elite politikoa daukagu, PSOE (PSE-EE barne) eta PPren inguruan bildutakoa. Hau guztia galarazteko, Lehendakaria bera espetxeratzeko lege bat *ad hoc* egiteraino heldu da elite politiko hori “demokrazia”ren izenean. Halaber, ikusi da zer nolako errespetua dion Espainiako Presidenteak Eusko Legebiltzarrari edo Loiolan bildutakoak adostear egon ziren testuari, “ateraldi” bezala definitzera heldu baita. Azkenik, ahalezko kontsultaren atea ere itxi egingo dute.

Hauek demokratik baldin badira, zer izango da Evo Morales Boliviako Santa Cruz eskualdean eginiko erreferendumaren ondoren bere aurkari politikoekin mahai batean esertzeko onartu baldin badu? eta Evo Morales diktadorea omen da! Edo zer ez dute esango suitzarrek zerga bat ezarri nahi denean erreferendumerako deialdia lasai demonstre hartzen baldin badute? edo quebectarrak? Zer esanik ez eskoziarrek.

Kuxidade honen guztiaren ondoren euskal gizarte zibileko zenbait erakundetako ordezkariak erabakitzeke eskubidearen aldeko plataforma bat eratzea pentsatu genuen. Berau Bilbon urtarrilaren 18an aurkeztu zen hedabideen aurrean, halaber ekitaldi bat antolatu genuen Donostiako



MADDI SOROIA

Kursaalen eta 1.200 bat pertsona bildu. Maiatzaren 14an, Bilbon, *Bakea, Askatasuna eta Erabakitzeke Eskubidea* izeneko dokumentua azaldu zitzaizen komunikabideei. Hemendik aurrera ere zenbait ekitaldi gehiago aurreikusten dira hiriburuetan, are gehiago Eusko Jaurlaritzaren proposamenak aurrera egin ahala.

Erabakiren lehenengo lanak erabakitzeke eskubidearen mamia jendarteratzea izan nahi du, jendarte zibilak barneratu behar bailuke, motibatuta egon dadin. Baina jendea motibatzeke eta kasu honetan erabakitzeke eskubidearen alde egoteko eta eskubide hau gauzatu ahal izateko hiritarrok onurak ikusi behar ditugu, alegia, demokrazia sakontzeaz gain, eskubide hau gauzatu ostean hobekiago biziko garela, ongizate, ekonomikoa barne, sakonago eta indartsuago izango dugula geure artean eta gainekoentzat solidarioak izaten jarraituko dugula.

Zertarako nahi dugu erabakitzeke eskubidea aitortzea, gero geure bizitza kalitateak apurka-apurka endekatzen jarraitzen badu edo geure agintari politikoei nahi dutena egiten jarraitzen badute? Adibidez, lan publiko erraldoiak bultzatuz eta hiritarren eskaera guztiei muzin eginez.

Erabakitzeke eskubidearen alde onak azaltzeko bide lagun ugari eta sendoak behar ditugu, indar metaketa burutu behar baita. Horretan arrazoi zeukan Rafa Diezek esan zuenean erabakitzeke eskubidera heltzeko Lizarratik igaro behar zela. Niretzat benetako egia da, baina Lizarrara berriro iristeko, ezker abertzale zibilak bere baitako zuzendaritza hartu behar du eta burdinadunak beren lekuan utzi, Europa aberats honetan armaz lortutako helburu politikoei iraupen laburra izango baitute.

Norabide honetan, bestalde, ELA ezin bestekoa da. Sindikatu abertzale hau erabakitzeke gurdian ez bada sartzen jai daukagu eta badirudi, zenbait agintari politiko gurdi horretan sartzeko oztupoak nahita jartzen ari zaizkiola. Haatik, ez gara oso urrun joango ELAekin elkarlana gauzatzeko gai ez garen bitartean. ■

Arrazoi dauka Rafa Diezek erabakitzeke eskubidera heltzeko Lizarratik igaro behar zela esatean. Baina Lizarrara berriro iristeko, ezker abertzale zibilak bere baitako zuzendaritza hartu behar du eta burdinadunak beren lekuan utzi